

BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

5741

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 3koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, zeinen bidez argitaratzen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legeari buruzkoa.

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den akordioa hartu ondoren, eta artikuluko horren c) letran ezarritakoarekin bat, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legeari buruzkoa. Ebazpen honen eranskinean jaso da, hain zuzen ere, akordioa.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 3a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

2011ko azaroaren 28a, astelehena

**ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEA**

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legeari buruzkoa.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordeak, 2011ko irailaren 30ean egindako bilkuran, akordio hau hartu zuen:

1.– Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren akordioa betez osatutako lan-taldeak egindako negoziaketekin bat etorri (lan-talde hori eratu zen, hain zuzen ere, honako gai hau aztertu eta konponbideak proposatzeko: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen inguruan sortutako desadostasunak), bi aldeek iritziz, desadostasun horiek konponduta geratu dira, honako interpretazio eta konpromiso hauek direla-eta:

A) 5/2010 Legearen 26. artikuluan 8.c), 9. eta 13. ataletan azaldutako desadostasunei dagokienez, alde bien ustez, pentsio-planerako ekarpenen zenbatekoak kontuan hartu behar dira arlo publikoan ari diren langileen ordainsariak kalkulatzeko, eta ondorioz, Estatuaren 2011rako Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 22ko 39/2010 Legearen 22. artikuluan jasotako oinarriko arauan ezarritako mugen aplikazioa baloratzeko ere balio dute.

B) Euskal Autonomia Erkidegoak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, agerian geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arlo publikoan ari diren langileen ordainsariak errespetatu egiten dituztela aipatutako legean 2011ko ekitaldirako ezarritako mugak.

2.– Lortutako akordioa dela-eta, bi aldeak bat datoz uste baitute sortutako desadostasunak konponduta geratu direla, akordio honetan aurreikusitako ebazpenei lotutako desadostasunak alegia, eta piztu den eztabaida bukatuta geratu dela.

3.– Akordio hau, Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Konstituzio Auzitegiari jakinaraztea, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Madril, 2011ko irailaren 30a.

Lurralde Politikako lehendakariorde eta Lurralde Politika eta Herri Administrazioako ministroa,
MANUEL CHAVES GONZÁLEZ.

Justizia eta Herri Administrazioako sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.